

Irabazi – iturriak

Gure diru-iturri nagusiena armairuen salmenta izango da. Armairuaz aparte, gure tabletaren bitartez ere dirua irabazten dugu, izan ere, bigarren eskuko arropa saldu ahalko da eta aplikazio horien irabaziak izango dira guretzat. Beraz, guk ez dugu arropa saltzen, baizik eta armairua erosten duten pertsonak, armairuaren barruan daukaten arropa saltzeko aukera dute.

Beraz, Gure negozioaren diru-sarrerak bi atal nagusitan banatuko dira: armairu adimendunen salmentatik datozenak eta gure aplikazio digitalaren bidez sortzen direnak.

Lehenik eta behin, bezeroek ordainduko duten prezioa armairuaren tamainaren, altueraren eta pertsonalizazio-mailaren arabera izango da. Produktuak hainbat neurri eta konfigurazio eskaintzen ditu, eta bezero bakoitzak bere beharretara egokitutako ereduak aukeratu ahal izango du. Horri esker, prezioa malgua da:

- Tamaina estandarreko armairuek prezio oinarritzko bat izango dute.
- Tamaina handiagoek edo pertsonalizazio bereziek kostu handiagoa izango dute.
- Armairuak dituen atal edo funtzionalitate/prestazio gehigarriak (adibidez, argiztapen adimenduna, sentsoak espezifikoak edo antolaketa modularra) ere prezioan eragina izango dute.

Ordainketa-moduei dagokienez, armairua erostean bezeroak ordainketa bakarra egingo du; beraz, produktu fisiko nagusiari lotutako ez da kuotarik, harpidetzarik edo halakoak ezarriko. Bezeroak produktua bere osotasunean eskuratzen du hasierako inbertsio bakarrarekin erraztasunak eskainiz.

Hala ere, gure proiektuan diru-sarrera osagarri garrantzitsuak sortuko ditu armairuan integratutako tabletaren bidez. Tabletak bigarren eskuko arropa salerosteko plataforma bat dauka, eta erabiltzaileek bertan argitaratu eta saltzeko aukera izango dute euren arroparen zati bat. Garrantzitsua da azpimarratzea guk ez dugula arropa saltzen: bezeroak dira arropa-ontziaren jabe eta saltzaile, eta gure enpresak salmenta bakoitzetik lortzen diren komisioak jasotzen ditu diru-sarrera osagarri gisa. Horrela, gure aplikazio digitala negozio-eredu osagarri bihurtzen da, etengabeko ordain-sarrera txiki baina jarraituak sortuz.

Diru-sarreraren egitura honela banatuko da:

1. Armairu adimendunen salmenta: hasierako diru-sarreraren zatirik handiena, gure jarduera ekonomikoaren oinarria izango dena. Proiektuaren lehenengo urteetan, %70 ingurukoa izatea aurreikusten dugu.
2. Arropa-salmentetatik sortutako komisioak: pixkanaka hazten joango den dirusarrera etengabea. Plataforma ezagutzera iritsi ahala, diru-sarrera hauek %30 iritsiko direla estimatzen dugu.